



**BERGARAKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA**

EBPN

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

EUSKARAREN KALEKO ERABILERAREN NEURKETA

BERGARA

- **2011ko emaitzak**
- **Urtez urteko bilakaera**

2011ko azaroa

AURKIBIDEA

1.- SARRERA	3
1.1.- Erabilera neurtzearen beharra	3
2.- NEURKETEN EZAUGARRIAK	4
2.1.- Neurketa egunak eta orduak	4
2.2.- Aztertutako zonaldeak eta neurtutako ibilbideak	4
2.3.- Neurtzaileak	4
3.- 2007KO EMAITZAK ETA BILAKAERA	5
3.1.- Emaizta orokorrak	5
3.2.- Neurketa-gunekako emaitzak	6
3.3.- Adin tartekako emaitzak	7
3.4.- Sexuaren arabera emaitzak	11
3.5.- Sexuaren arabera emaitzak, adin-tarteka	11
3.6.- Haurren presentziaren arabera emaitzak	14
3.7.- Haurren presentziaren arabera emaitzak, adin-tarteka	16
3.8.- Adin talde berekoen eta ezberdinen arabera emaitzak	17
4.- EMAITZEN AZTERKETA ETA ESANAHIA	19
4.1 Espero daitekeen erabilera: kontzeptuaren azalpena	19
4.2 Erabilera erreal eta espero daitekeen erabilera.	20
5.- BALORAZIO OROKORRA eta ETORKIZUNEKO AURREIKUSPENA	23

1.- SARRERA

1.1.- Erabilera neurtzearen beharra

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Horregatik, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kaleko euskararen erabilera, hain zuzen ere.

Badira beste hainbat datu (errolako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegietako matrikulazio datuak...) herriko hizkuntza egoera ezagutzeko baliagarri direnak. Hala ere, herrian euskararen normalizaziorako ahaleginen emaitzak eta denborarekin gertatzen diren aldaketak esparru bakoitzeko eguneroko erabileran islatzen dira, besteak beste, herriko kaleetan. Kaleko erabileraren neurketak, hortaz, errealitate horren berri ematen digu modu zuzen eta objektibo batean.

Kontuan izan behar dugu, hizkuntza egoerari buruz ematen diren datu gehienak, oro har, hiztunek inkestetan aitorturiko datuak direla (errolakoak, inkesta bidezko ikerketak, etab.). Hau horrela da, besteak beste, erabilera modu errealean neurtzea ez delako erraza izaten. Txosten honek, berriz, kalean behaketa zuzenaren bidez lorturiko datuak eskaintzen ditu.

2. NEURKETEN EZAUGARRIAK

1983an neurtu zen lehenengo aldiz Bergaran euskararen kaleko erabilera eta 1993az geroztik urtero egin izan da. Eta urtez urteko datuok konparagarriak izan daitezten, beti metodologia, egun, ordu, eta neurketa-gune berdintsuak hartu ohi dira.

2.1.- Neurketa egunak eta orduak

Guztira ondorengo koadroan dituzuen bost neurraldiak egin dira 2010ean:


EGUNA	ORDUA
Urriak 21, ostirala	18:00-20:00
Urriak 22, larunbata	11:00-13:00
Urriak 22, larunbata	18:00-20:00
Urriak 23, igandea	12:00-14:00
Urriak 26, asteazkena	18:00-20:00

2.2.- Aztertutako guneak eta neurketarako ibilbideak

Azkeneko urteetan lau gune aukeratu eta bakoitzean ibilbide bat zehaztu izan da; kalerik jendetsuenak biltzen dituzten ibilbideak, hain zuzen ere. Aurten, iaz bezala, gune horiei Osintxu gehitu diegu. Iazkoaren aurretik 1998an egin genuen bertan neurketa azkeneko aldiz.

1. ibilbidea: *Fraiskozuri / Usondo / Matxiategi*
2. ibilbidea: *Espoloia / Bidekurutzeta / Barrenkalea / Irala*
3. ibilbidea: *San Antonio / Zubiaurre / Labegaraieta*
4. ibilbidea: *Bolu / Masterreka / Kruz Gallastegi*
5. ibilbidea: Osintxu

2.3.- Neurtzaileak

-  Urtero egin izan den bezala, aurten ere, ibilbide bakoitzean 2 lagun ibili dira neurketa egiten.

3.- 2011KO EMAITZAK ETA BILAKAERA

Kaleko erabileraren neurketaren emaitzak aztertzerakoan askotan joera handia izaten da azken bi urteetako neurketak konparatu eta konparaketa horretatik halako edo holako balorazioak egiteko. Esperientziak erakusten digu hori ez dela batere egokia eta epe luzeagoetan gertatzen diren bilakaerak baloratu behar direla. Horregatik txosten honetan kasu guztietan urtez urte ikusten diren joerak baloratuko ditugu eta ez azken urteko emaitzak.

Era berean, joera handia izaten da emaitza orokorren balorazio hutsean geratzeko. Guk garrantzitsuagoa deritzogu emaitzak aldagaika (adinka, sexuka, neurketa-guneka...) aztertzeari azterketa horretatik etorkizuna aurreikusteko datu interesgarriak lor baikenitzake.


3.1.- Emaitza orokorrak: urtez urteko bilakaera

1. taula. Erabilera orokorra, urtez urteko bilakaera (%).

Urteak	Guztira (%)
1983	34
1988	40
1989	38,1
1991	44,4
1993 (Udala)	33,6
1993 (EKB)	40,5
1994	38,1
1995	37,0
1996	37,3
1997	35,2
1998	41,3
1999	37,3
2000	47,2
2001	42,2
2002	36,4
2003	41,7
2004	36,9
2005	45,4
2006	52,8
2007	44,5
2008	43,6
2009	39,5
2010 (Osintxurekin)	43,8
2011 (Osintxurekin)	41 ¹
2001-2010 batezbestekoa	43,1

¹ 2011n, 2010ean bezala, Osintxun ere egin da neurketa. Aurretik hainbat urtetan ez da egin izan. Osintxu kontuan hartu gabe, 2010ean guztizkoa 41,2koa izan zen eta 2011n 38,7.

1. grafikoa. Euskararen erabilera, guztira, urtez urteko bilakaera (%)



BALORAZIOA

✚ 2001etik 2010era bitarteko hamarkadako batez bestekoa %43 ingurukoa da. Aurten kopuru horren azpiko emaitza izan da nabarmen samar; bestalde, 2005etik 2008ra bitartean batezbestekotik gorako emaitzak izan ondoren azken urteetan emaitza apalagoak izan dira: 2009-11 tartean, %41,4 Osintxu kontuan hartuta eta %40 Osintxu kontuan hartu gabe.

Hurrengo urteetako joera zein den ikusi beharko da baina kezkatzeko moduko datuak dira.

✚ Edonola ere, esan beharra dago horrek ez duela esan nahi erabilera hori bere barnean guztiz egonkorra eta berdina denik, 3.3. puntuan (erabileraren emaitzak adin-tarteka) garbi azalduko denez.


3.2.- Neurketa-gunekako emaitzak

Hona hemen neurketa-gune bakoitzeko euskararen erabileraren azken urteetako emaitzak:

2. taula. Euskararen erabilera, guneka (%)

IBILBIDEAK	1998	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11
Matxiategi-Frontoia-Usondo	33,7	37,7	40,4	39,8	51,3	59,6	33,5	48,0	39,4	34,9	44
Barrenkalea-Irala-Bidekurutzeta-Espoloia	33,2	42,4	49,7	38,5	45,8	42,4	50,2	42,7	40,4	48,5	31,3
Zubiaurre-San Antonio-Labegarieta	30,3	21,6	30,9	28,3	22,7	30,8	20,5	27,5	32,6	18,4	33,2
Bolu-Masterreka-Kruz Gallastegi		-	-	-	49,5	59,7	64,9	51,5	40,1	43,5	61,
Osintxu	71,9	-	-	-	-	-	-	-		57,5	69,7

2. grafikoa. Erabilera, guneka (%)



BALORAZIOA

📊 Urtez urteko datuak kontuan hartuz gero, nabarmentzeko datua honako hau dugu: Zubiaurre-San Antonio-Labegarietan euskararen erabilera Bergarako gainerako guneeetan baino nabarmen baxuagoa da. Aurten erdigunean emaitza apalxeagoa eman duen arren, aztertutako gainontzeko urte guztietan gune horretan izan dira emaitzarik apalenak.

📊 Aurtengo salbuespenarekin, herriko erdiguneko eta gertuko beste ibilbideetan, berriz, ez da alde nabarmenik antzematen euren artean, urtez urteko irakurketa egiten badugu.

📊 Azkenik, Osintxuri dagokionez, 1998tik 2010era neurketa egin gabe geunden eta iaz jaitsiera nabarmena eman zuen baina aurten 1998ko antzeko kopurua eman du.

📊 Bestalde, taula honetan agertzen ez bada ere, aipatzekoa da euskara eta gaztelaniaz aparteko hizkuntzen presentzia: Zubiaurre-San Antonio-Labegarietan, %6a eta Osintxun %4.



3.3.- Adin tartekako emaitzak

Neurketako datuak adin taldeka bereizita jaso ditugu, adin-taldeok, honela banatuta:

- **HAURRAK:** 0-14 urte bitartekoak.
- **GAZTEAK:** 15-24 urte bitartekoak
- **HELDUAK:** 25-64 urte bitartekoak
- **ZAHARRAK:** 65 urtetik gorakoak


Adin-tartekako emaitzen azterketa hau da, gure ustez, garrantzitsuenetako bat, etorkizunean izan dezakegun egoera aurreikusteko balio baitigu. Hona hemen urtez urte orain arte egindako neurketa guztietan jasotako datuak (euskaraz %):

3. taula. Erabilera adin-tarteka, urtez urte (%).

URTEA	Haurrak (0-14)	Gazteak (15-24)	Helduak (25-65)	Zaharrak (65-..)	GUZTIRA
1983	48	10	38	54	34
1988	55	20	38	62	40
1989	67,6	23,7	26,1	62,5	38,1
1991	65,2	48,0	32,8	50,3	44,4
1993 (Udala)	58,9	31,6	20,6	39,9	33,6
1993 (EKB)	66,0	41,6	28,8	36,4	40,5
1994	59,7	36,8	25,5	45,0	38,1
1995	66,2	38,3	25,1	47,4	37,0
1996	64,0	36,1	22,5	44,0	37,3
1997	50,1	29,4	22,3	38,8	35,2
1998	62,8	46,0	30,7	39,6	41,3
1999	56,5	45,9	27,9	35,6	37,3
2000	65,5	56,7	30,3	49,9	47,2
2001	65,6	47,6	27,0	48,8	42,2
2002	58,4	41,1	26,1	27,3	36,4
2003	60,4	54,5	31,6	34,6	41,7
2004	61,8	46,8	28,3	20,1	36,9
2005	62,2	49,7	37,9	29,5	45,4
2006	70,6	50,5	41,5	51,5	52,8
2007	57,9	52,6	37,0	34,1	44,5
2008	60,6	53,4	36,1	31,9	43,6
2009	59,9	35,9	33,3	30,4	39,5
2010 (Osintxu barne)	61,9	42,6	38,7	34,1	43,8
2011 (Osintxu barne)	57,6	44,7	36,0	26,3	41,0 ²

² 2011n, 2010ean bezala, Osintxun ere egin da neurketa. Aurretik hainbat urtetan ez da egin izan. Osintxu kontuan hartu gabe, 2010ean guztizkoa 41,2koa izan zen eta 2011n 38,7.

3. Grafikoa. Erabilera adin-tarteka, urtez urte (%).



Grafikoan ikus litekeenez badira urte batetik hurrengora gorabehera dezenteak. Edonola ere, merezi du joera nagusiak ikusteko urte multzokako batezbestekoak ateratzea. Hona hemen batez bestekook, 5 urteko multzoka:


4. taula. Euskararen erabileraren bilakaera adin-tarteka, urte multzoka. (%).

Urtea	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	GUZTIRA
1983-89	56,9	17,9	34	59,5	37,4
1991-95	63,2	39,3	26,6	43,8	38,7
1996-2000	59,8	42,8	26,7	41,6	39,7
2001-2005	61,7	47,9	30,2	32,1	40,5
2006-2010	61,4	46,6	37,1	34,7	44,8
2011	57,6	44,7	36,0	26,3	41

4. grafikoa. Euskararen erabileraren bilakaera adin-tarteka, urte multzoka. (%).



BERGARA
EUSKARA



BALORAZIOA

- ✚ Azkeneko ia 20 urteetan gertatu izan den bezala, 2011. urtean ere haurrek agertu dute euskararen erabilera altuena eta ondoren gazteek jarraitzen diete. Bestalde, aurreko urteetako gehienetan gertatu den bezala, zaharrak dira erabilera apalena eman dutenak.
- ✚ Urte multzokako bilakaerari erreparatzen badiogu, berriz, GUZTIRAKo datuan honakoa antzematen da: epe luzean igoera apal bat izan ondoren, azkeneko 5 urteetan igoera hori nabarmenagoa izan dela. Datu hori kontuz hartu beharrekoa da. Alde batetik, badu bere logika kontuan hartuta helduetan (25-64 urte bitartekoetan) gorazko joera dezentea nabari dela eta hori dela gizarteko multzo ugariena. Edonola ere, kontuz hartzekoa dela diogu, izan ere emaitza horretan eragin handia baitu 2006ko emaitzak (%52,8) eta azkeneko urteetako emaitzak apalagoak izan baitira.
- ✚ Adin-tarte bakoitzaren bilakaerari erreparatuta, berriz, honakoa esan liteke:
 - **Haurrak.** Aspaldiko urteetan nahiko egonkor dago %60 inguruan.
 - **Gazteak.** 1983ko lehenengo neurketetatik hona adin-tarte honetan izan da igoerarik handiena: 30 puntukoa. Hala ere, 1998tik 2008ra, %45 eta %55 artean ibili ondoren, azkeneko urteetan hortik azpirako emaitzak izan dira. Ikusi egin beharko da hurrengo urteetan zer bilakaera duen.
 - **Helduak.** Orain dela 10-15 urte inguru behea jo ondoren goranzko joera antzematen da azkeneko urteetan.
 - **Zaharrak.** Zaharren bilakaerari erreparatuta, azkeneko urteetan erabilerak beheranzko joera nabarmena izan du eta ematen du behea jota edo jotzetik gertu egon litekeela, izan ere, emaitzok helduek izandako bajuenetik gertu baitaude. Nabarmentzekoa da lehenengo bi

neurketetan (1983 eta 1988an) adin-tarte hau izan zela emaitzari altuena eman zuena eta, aldiz, azkeneko 8 neurketetatik 7tan berau izan dela erabilera baxuena agertu duena.


3.4.- Sexuaren arabera emaitzak³

Azkeneko urteetako neurketetan kontuan hartu da sexuaren aldagaia ere eta hurrengo orrialdeetan ikusiko dugunez, datu esanguratsuak ikus litezke. Hona hemen datu orokorrak urtez urte:

5. taula. Erabilera, sexuaren arabera, urtez urte (%)

SEXUA	97	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11 ⁴
Emakumezkoak	33	56	41	43	42	51	53	46	47	41,1	44,2	42
Gizonezkoak	36	36	28	36	35	38	52	42	40	38,5	43,4	39,7

5. grafikoa. Erabilera, sexuaren arabera, urtez urte (%)



BALORAZIOA

- Lehenengo urtean izan ezik, emakumezkoak dira urtero erabilera handiena agertzen dutenak, nahiz eta egia den zenbait urtetan, aldeak txikiak izan direla. Alderik nabarmenena 2001eko datuetan ageri da.
- Hala ere, interesgarria iruditu zaigu sexuen konparaketa adin-tarteka ere egitea, emaitzak ez baitira berdinak adin-tarte guztietan.

³ Esan beharra dago sexuaren aldagaia ez dela orain arte urte bakoitzean egin izan diren egun guztietako neurketetan kontuan hartu. Normalean, guztira 5 neurketa egin ohi dira urte bakoitzean eta 2-3 neurketetan erabili izan da sexuaren eragina neurtzeko fitxak eta besteetan umeen presentziaren eragina neurtzekoak. 2006az geroztik aldiz, urtero neurtualdi guztietan neurtu da sexuaren eragina.

⁴ 2010 eta 2011n Osintxuko neurketa ere kontuan hartuta.



3.5.- Sexuaren araberako emaitzak adin-tarteka.

Hona hemen sexuaren araberako emaitzak adin-tarte guztietan jasotzen dituen taula:


6. taula. Erabilera, sexuaren eta adin-tarteen arabera, urtez urte (%)

	0-14		15-24		25-64		65-...	
	Emakm.	Gizon.	Emakm.	Gizon.	Emakm.	Gizon.	Emakm.	Gizon.
1997	58	52	58	45	19	24	29	38
2001	93	54	58	34	36	26	53	32
2002	61	46	54	22	33	26	17	17
2003	65	52	67	41	30	26	34	36
2004	71	61	63	36	32	26	22	22
2005	70	54	60	32	39	35	39	23
2006	71	70	53	48	44	38	50	54
2007	61	54	55	48	38	36	34	34
2008	68	55	71	37	38	33	31	34
2009	65,7	50	46,8	19,7	34,5	29,7	27,5	32,3
2010	63,3	60,5	54	27,2	39,2	37,8	31,8	37,2
2011	61,5	53,8	55,4	24,4	35,8	36,2	26,2	26,3

Jarraian adin-tarte bakoitzean sexu bakoitzaren emaitzak azaltzen dituzten grafikoak dituzue bakoitzari buruzko balorazio labur batekin.

0-14 ADIN-TARTEA

6. grafikoa. Erabilera, 0-14 adin tartean, sexuaren arabera (%).






- Adin tarte honetan emakumezkoek euskara erabiltzeko joera handiagoa agertu izan dute. Aldea urte gehienetan 12-15 puntu ingurukoa izan da, nahiz eta aurtun, iaz bezala, txikiagoa izan den.

15-24 ADIN-TARTEA

7. grafikoa. Erabilera, 15-24 adin tartean, sexuaren arabera (%).




BALORAZIOA

- Gazteen adin tarte honetan izan da urte gehienetan emakumezko eta gizonezkoen arteko aldea beste guztietan baino nabarmenagoa da: urte askotan, 30 puntu ingurukoa. Horixe da, gainera, neurketak urte gehienetan azaltzen duen daturik kezagarrienetako bat: adin-tarte honetako mutilen erabilera baxua. Azkeneko hiru urteetan, gainera, mutilen erabilera hori helduena bera baino baxuagoa izan da.

25-64 ADIN-TARTEA

8. grafikoa. Erabilera, 25-64 adin tartean, sexuaren arabera (%).




BALORAZIOA

✚ Nahiz eta emakumezkoek euskaraz egiteko joera handitxoagoa adierazten duten, adin tarte honetan gazteagoetan baino askoz alde txikiagoak nabari izan dira orain arteko urte gehienetan. Baliteke, gainera, alde hori txikiagoa izatea umeen presentziarik gabeko erabilera bakarrik kontuan hartuko bagenu. Hau da, gerta liteke emakumeen erabilera handiagoa, neurri batean, honako faktore honengatik izatea: emakumeak sarriago ibiltzen direla umeekin gizonezkoak baino.

65-... ADIN-TARTEA

9. grafikoa. Erabilera, 65 urtez gorakoetan, sexuaren arabera (%).



BALORAZIOA

✚ Adin-tarte honetan ez da antzematen alde nabarmenik sexuen artean, baina urterik gehienetan gizonezkoak dira erabilera handiagoa azaltzen dutenak.

3.6.- Haurren presentziaren araberako emaitzak⁵

Azken urteetako neurketetan kontuan hartu ohi den beste aldagai bat haurren presentziarena da, izan ere, datuek erakusten dute elkarrizketetan haurrak izateak edo ez izateak beste adin-tartekoen erabileran ere eragiten duela.


Hona hemen urtez urteko datuak (euskaraz, %). Gauza bat argitu beharra dago: atal honetan “nagusi” esaten denean **gazte, heldu eta zahar** hartzen direla:

⁵ Esan beharra dago haurren presentziaren aldagai ez dela orain arte urte bakoitzean egin izan diren egun guztietako neurketetan kontuan hartu. Normalean, guztira 5 neurketa egin ohi dira urte bakoitzean eta 2-3 neurketetan erabili izan da sexuaren eragina neurtzeko fitxak eta besteetan umeen presentziaren eragina neurtzekoak. 2006az geroztik, aldiz, egun guztietan neurtu dira bi aldagaiok.

7. taula. Erabilera orokorra, haurren presentziaren arabera, 2001-2008 (%)

	01	02	04	05	06	07	08	09	10	11
Haurren elkarrizketa	61	75	63	69	75	55	53,2	47,8	42,4	53,2
Haur/ nagusi elkarrizketa	58	51	65	58	63	60	66,8	72,8	69	65,3
Nagusien elkarrizketa, haurrak ondoan	14	33	19	39	53	48	30,3	29,6	42,4	36,6
Nagusien elkarrizketa, haurrik ez	22	23	20	34	43	34	30,3	26,4	29,5	27,0
EMAITZA OROKORRAK	42,2	36,4	36,9	45,4	52,8	45	43,6	39,5	43,8	41

10. grafikoa. Erabilera orokorra, haurren presentziaren arabera, 2001-2008 (%)



BALORAZIOA

- Urtez urteko datuek adierazten dutenez, haurren presentziak eragin nabarmena du beste adin-tartekoek euskararen erabileran. Haurrekin dihardutenean, beste adin-tartekoek erabilera nabarmen igotzen da, azkeneko urteetan umeek euren artean duten erabilera-maila gainditzera. Horrek erakusten du nagusien artean, bereziki, umeekin ibiltzeko edatea dutenetan badagoela euskaraz egiteko potentzialidade handi bat baina oso errotuta dagoela honako joera: haurrekin euskaraz eta gero beraien artean gaztelaniaz egitekoa.
- Edonola ere, ematen du presentzia horrek zuzeneko behar duela, hau da haurrak elkarrizketan partaide izan behar duela, izan ere, bere presentzia soilatik ez da, urte gehienetan, emaitzetan eragin nabarmenik antzematen.



3.7.- Haurren presentziaren arabera emaitzak, adin-tarteka.


Interesgarria iruditu zaigu haurren presentziak gainontzeko adin-tarteetako bakoitzean duen eragina aztertzea. Hala ere, atal honetan ez dugu 15-24 adin-tartea kontuan hartu adin-tarte horretako kopuru absolutuak oso txikiak direlako eta, beraz, bertako emaitzen fidagarritasuna oso baxua delako. Ikus dezagun 25-64 urte bitartekoetan eta 65 urtez gorakoetan zer gertatzen den.

25-64 ADIN-TARTEA

8. taula. Erabilera 25-64 adin-tartean, umeen presentziaren arabera (%).

	2001	2002	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<i>Haurren presentziarik ez</i>	11	14	18	28	39	28	24	23,7	26,7	25
<i>Haur nagusi elkarrizketa</i>	50	42	67	62	55	58	66,3	71,2	68	66,5

11. grafikoa. Erabilera 25-64 adin-tartean, umeen presentziaren arabera (%).



BALORAZIOA

- Alde batetik, aipatu beharra dago haurren presentziak ikaragarriko eragina duela helduen erabileran.
- Bestetik, taulak agertzen du emaitza positibo bat: 2001etik 2011rako emaitzak guztira hartuz gero, erabilerak, haurren presentziarik gabe, hots, nolabaiteko kanpoko eraginik barik, igoera dezentea izan du. 2001etik 2006ra izandako igoera gehiegizkoa zen eta 2006tik 2008ra beheranzko joera izan zuten eta azken urteotan nahiko egonkortuta nabari da. Ikusi egin beharko da hurrengo urteetan zer joera dagoen. Edozein kasutan, ere hau da, zalantzarik gabe,




azken urteetako neurketek erakusten duten daturik positiboenetakoa, nahiz eta, berez, umeen presentziarik gabeko datuok bajuak izan.

65 URTEZ GORAKOAK

9. taula. Erabilera 65 urtez gorakoetan, umeen presentziaren arabera (%).

	2001	2002	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<i>Haurren presentziarik ez</i>	28	27	16	32	49	32	29,9	28,7	31	24,7
<i>Haur nagusi elkarrizketa</i>	43	86	33	37	57	55	55,6	21,4	41,7	44

12. grafikoa. Erabilera 65-.. adin-tartean, umeen presentziaren arabera (%).



BALORAZIOA

- Adin-tarte honetan ere, haurren presentziak eragin nabarmena du zaharren erabileran; hala ere, eragin hori helduen kasuan baino txikiagoa da urterik gehienetan.

3.8.- Adin talde berekoen eta ezberdinen arabeko emaitzak.

Azkeneko hiru urteetako neurketetan kontuan hartu den beste aldagai bat, adin talde berdinekoak beraien artean mintzatzean eta adin talde ezberdinekoak beraien artean jardutean zein hizkuntza erabiltzen duten izan da.

Hona hemen 2006, 2007, 2008, 2009, 2011ko neurketen emaitzak (euskaraz, %).

10. taula. Adin talde berekoen eta ezberdinen arabera emaitzak (%)

Adina	Urtea	Adin talde bera	Adin talde desberdina	Guztira
0-14	2006	74,92	60,27	68,61
	2007	55,5	60,91	57,82
	2008	52,52	68,66	59,89
	2009	47,8	68,1	57,2
	2010	56,8	65,2	61,9
	2011	53,2	62,2	57,6
15-24	2006	49,45	52,51	50,53
	2007	49,64	56,19	52,03
	2008	54,91	51,39	54,27
	2009	37,4	22,7	35,1
	2010	44	39,1	42,6
	2011	40,3	65,7	44,7
25-64	2006	41,81	41,12	41,47
	2007	25,65	49,67	36,73
	2008	23,54	67,10	37,28
	2009	24,2	48,6	32,2
	2010	25,4	51,8	38,7
	2011	23,4	52,5	36,0
65-...	2006	48,84	54,73	51,47
	2007	31,99	38,33	33,85
	2008	28,33	52,81	32,25
	2009	29,6	29,7	29,6
	2010	31	41,7	34,1
	2011	23,4	34,3	26,3

BALORAZIOA

- ✚ Zenbait urtetan kontrakoa ere gertatzen bada ere, neurketa gehien-gehienetan (%80an) erabilera apalagoa gertatzen da adin-tarte berekoekin jardutean.

4. EMAITZEN AZTERKETA ETA ESANAHIA

4.1 Espero daitekeen erabilera: kontzeptuaren azalpena

Atal honetan erabilera errearen eta espero daitekeen erabileraren (erabilera isotropiakoaren) arteko alderaketa egingo dugu; bata, erabilera erreala, Kale Neurketan jasotako emaitza da, eta bestea **J.L. Alvarez Enparantzaren – Txillardegiren- eredu matematikoa** aplikatu ondoren lortutakoa. Horretarako euskararen ezagutza mailaren arabera espero daitekeen erabilera kalkulatu da, hau da, ezagutza hainbestekoa izanik (gure kasuan % 70 da) bikotekako, hirukotekako, eta laukotekako elkarrizketetan euskaraz hitz egitea estatistikoki zenbatean den posible aztertzen da. Horretarako gure hipotesian euskaldunak euskaldunekin elkartzen direnean BETI euskaraz mintzatuko direla suposatuko dugu; egoera baikorrena beraz, pentsatuaz elebidunak euskararekiko erabat leialak direla, eta elebidun batekin topatzean beti euskaraz arituko direla.

Beraz, hipotesi horri jarraituta ezagutzaren eta erabileraren arteko erlazioa aztertuko dugu. Sarritan entzun ohi da erabilera ezagutza mailara iristen (edo gerturatzen) ez den bitartean, erabilera baxua dela. Baieztapen hori, ordea, ez da zuzena, ezagutza eta erabilera ezin daitezkeelako bat etorri, gurea bezalako aldebakarreko elebitasun egoera batean.

Azter dezagun ezagutzaren eta erabileraren arteko erlazio hori adibide batekin:

Eman dezagun laukote batean (A, B, D, C) hiru elebidun ditugula: A, B, D. Demagun elebidun horiek euskararekiko erabat leialak direla, alegia, beraien mintzakideak euskaraz baldin badaki beti euskaraz aritzen direla (adibiderako hipotesi didaktiko bat da, dudarik gabe).

Laukote horretan euskararen **ezagutza** % 75 da, lautik hiru baitira euskaraz hitz egiteko gai. Azter dezagun jarraian euskararen **erabilera** .

Horretarako **zoriz** gerta daitezkeen elkarrizketa posibleak kalkulatu ditugu.

Bikoteka, 6 talde ditugu: AB, AD, AC, BD, BC, eta DC. Horietatik C ez dagoenean hitz egingo da euskaraz, hiru kasuetan beraz (AB, AD, eta BD), beste bikoteetan erdaldun elebakarra baitago.

Hirukoteka, 4 talde ditugu: ABD, ABC, ADC, eta BDC. Horietatik elkarriketa bakarrean hitz egingo da euskaraz (ABD), gainontzeko hiruretan erdaraz mintzatuko dira.

Azkenik, **laukoteka** talde bakarra dugu. Eta noski C erdaldun elebakarra bertan egonez gero, erdaraz arituko dira.

Ondorioa garbia da: **hamaika taldetatik** (6 bikote, 4 hirukote eta laukote 1) **lau taldetan** arituko dira euskaraz (3 bikotetan eta hirukoteko batean). Hau da, taldeen % 36,4an arituko dira euskaraz.

Erabilera isotropikoaren formulak aplikatzen baditugu, ikusten dugu nola euskararen **ezagutza % 75** izanik, eta euskaldunak aukera guztietan (mintzakidea euskalduna den guztietan) euskaraz arituko direla suposatuta **-egoera baikorrena**, beraz- erabilera **% 48,16 da**.

4.2 Erabilera erreala eta espero daitekeen erabilera

Aurreko adibidearen oinarria matematikara ekarrita, J.L. Alvarez Enparantzak – *Txillardegik*– espero daitekeen erabilera kalkulatzeko eredua sortu du. Ikus dezagun jarraian Bergaran egindako eredu horren aplikazioa.

Bergarako euskararen ezagutza, 2001eko eroldaren arabera, % 70 da. Espero daitekeen erabilera (edo erabilera isotropiakoa) ondorengo formularekin kalkulatu dugu:

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

P_B =euskararen erabilera maila

m_B =euskararekiko leialtasuna

w_2 =bikotearen pisua

w_3 =hirukotearen pisua

w_4 =laukotearen pisua

e_x =elebidunen proportzioa


Euskararen erabilera maila:

$$1(0,5488 \cdot 0,700^2 + 0,2862 \cdot 0,700^3 + 0,1650 \cdot 0,700^4) = 0,262 = \text{\% } 40,7$$

Hortaz, Bergarako biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, **estatistikoki espero daitekeen euskararen erabilera % 40,7 da**. 1. grafikoan ikus dezakegun

moduan, kale neurketak ematen dituen emaitzak inguru horretan dabilta, batzuetan gaintik (adibidez, 2005ean, %45,4 eta 2006an %52,8) eta beste batzuetan azpitik (2004an, %36,9).

13. grafikoa. Espero daitekeen erabilera eta urtez urtekoa (%).



Esan bezala espero daitekeen erabilerak zera adierazten du: herriko edonork beste edonorekin hitz eginez gero (ausazko konbinaketak eginaz), zenbat aukera dauden estatistikoki biak euskaldunak izateko. Beste era batera esanda, euskaldunek, aukera duten egoera guztietan (leialtasuna %100) euskaraz egiten dutela suposatuz, erabilera zenbatekoa litzatekeen.

Hau erreferentzia teorikoa da, dena den. Jakin badakigu praktikan:

- euskaldunen leialtasuna ez dela % 100ekoa izaten: euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla kasu guztietan euskaraz izaten.
- herriko edonork ez duela praktikan beste edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin, adin berekoekin eta herriko zenbaitekin ez dugu praktikan inoiz harremanik).

Espero daitekeen erabileraren inguruan gehiago sakondu nahi izanez gero, "Txillardegiren eredu matematikoa eta erabilera isotropiakoa" eranskinera jo dezakezue.

5.- BALORAZIO OROKORRA ETA ETORKIZUNERAKO AURREIKUSPENAK

2011ko neurketa eta azken urteetakoak oinarri hartuta, honako balorazio laburra egingo genuke:

Alde positiboan, bereziki, **helduetan gertatzen ari den pausoz pausoko igoera** aipatuko genuke: 1996-2000 bosturtekoetik 2006-2010 bosturtekora 10 puntu igo du adin-tarte honetan euskararen erabilerak. Badirudi, gainera, igoera hori antzematen dela haurren presentziarik gabeko kasuetan ere. Horretaz aparte, multzo hau gizarteko multzorik jendetsuena izatean, emaitza orokorrean ere bere eragina nabarmena da eta erabilera orokorrak ere azkarrago egin dezake gora hemendik aurrera orain arte baino.

Bestalde, **alde negatiboan mutil gazteen erabilera baxua** aipatu beharra dago. Azken bi urteetan helduen erabilera bera baino baxuagoa eman dute mutil gazteek. Inongo zalantzarik barik, hau da neurketak erakusten digun alderdirik kezkarriena.

Nabarmentzeko beste puntu batzuen artean, berriz, hauek aipa genitzake:


- Haurren presentziak beste adin-taldeen erabileran duen eragina: hurrekin dihardutenean, beste adin-tartekoen erabilera nabarmen igotzen da, azkeneko bi urteetan umeek beren artean duten erabilera gaitasunaz gainditzerainokoa. Horrek bi aurpegiko irakurketa izan dezake: alde batetik gaurko helduek badute neurri batean, behintzat, euskaraz egiteko gaitasuna baina, bestetik, aukera hori neurri apalean baliatzen dute euren artean daudenean.
- 2002tik 2006rako neurketetan umeen erabileran goranzko joera izan zen arren, azkeneko urteetan emaitza apalagoak izan dira eta badirudi geldituta dagoela.
- Aipagarria da, era berean, Zubiaurre-San Antonio-Labegarieta gunean agertzen den erabilera baxua.
- Azkenik, kontuan hartzekoa da apurka-apurka beste hizkuntzen presentzia goraka doala bereziki: Zubiaurre-Labegarieta-San Antonion eta Osintxun.

Etorkizunerako aurreikuspenei dagokienez, berriz, honako hau hartu behar dugu kontuan: etorkinen eragina kontuan hartu gabe, honelatsuko bilakaera bat izan dugu 2001etik 2011ra gaitasunari dagokionez:

11. taula. Gaitasuna adin-tarteka, 2001eko datuen estrapolazioa⁶.

	0-14	15-	25-	65-,,,
2001	96,13	91,29	61,29	71,03
2006	96,45	94,84	65,33	66,55
2011	96	96,13	68,66	63,99

14. grafikoa. Gaitasuna adin-tarteka, 2001eko datuen estrapolazioa.



Beraz, haur eta gazteen gaitasunak neurri handi batean goia jo du eta ez du gora egingo, elebidun kopuruaren aldetik, behintzat. Elebitasun motaren aldetik, hiztunak hizkuntza bakoitzean duen gaitasun erlatiboaren aldetik, alda daiteke egoera eta faktore hori izango da erabakiorra erabileran gora egiteko. Hemen ez gara sartuko gaitasun erlatibo hori euskararen alde makurtzeko, hau da euskal elebidunak sortzeko, egon litezkeen aukerez eta horretarako egin beharko litzatekeen politika aztertzeraz. Horixe, ume eta gazte euskal-elianiztunak sortzea, da une honetan dugun apustu nagusia da, dudarik gabe. Helduetan, berriz, normalena izango litzateke oraindik erabilerak gorantz egitea, kontuan izanda gazteen gaitasuna helduena baino nabarmen handiagoa dela eta gazteok helduen taldera pasatu ahala helduen gaitasuna hazi egingo dela. Zaharretan, berriz, oraindik beste 10 bat urtean gaitasuna jaisten joango da nahiz eta erritmo motelagoan izan eta, uste izatekoa da erabilera ere maila berean jaisten joango dela.

⁶ 2001eko erroldako datuak estrapolatuta ateratako emaitzak dira, urte horretakoa baita gaitasuna adinka banatuta ematen digun azkeneko errolda. Hemen ez da jasotzen, jakina, harrez gero izan dugun inmigrazioaren eragina. Hala ere, lehenengo hurbilketa baterako baliagarri direlakoan gaude.



BERGARAKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA

Kaleko erabileraren neurketa 2010

EBPN

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia



**BERGARAKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA**

EBPN

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia